

Haurren familiekin komunikatzeko edo harremanetan jartzeko, hainbat baliabide eskeiniko dizkiegu. Saiatuko gara harremana ahalik eta hurbilena izaten.

Lehenik eta behin, web-orrialde bat sortuko genuke gure aisialdi taldeko informazio guztia arakatzeko. Bertan, udalekuetako ekintza desberdinen argazkiak igoko genituzke, beti ere, familien baimenarekin. Modu honetan egunero beraien haurrek zer egiten duten eta nola moldatzen diren ikusi ahal izango dute. Zalantzaren bat egonez gero, web-orrialdean informazio guztia bilatu dezakete eta horrez gain telefono zenbakiak eta gmailak txertatuta egongo dira, gurekin elkarrizketa bat nahi izanez gero.

Guzti horretaz gain, eguneroko programazioa agertuko da, haurrek egun bakoitzean zer egingo duten azalduz.

Familiek ibilaldien informazioa ere eskuragarri izango dute eta ekintzak proposatu nahi izanez gero aukera izango dute; horrela, interesgarriak diren ekintzak planteatu eta bidali ahal izango dituzte, guri ideia berriak emanez.

Instagram, Facebook, Twitter bezalako sare sozialetan ere perfilak egingo ditugu. Guzti hauetan, informazio eta argazkiak jarriko ditugu. Kanal hauek, gazteentzat batez ere, oso garrantzitsuak izango dira.



Bezeroekin harreman zuzena edukiko dugu, beraz, bilera edo hitzaldi desberdinak eskainiko ditugu. Bilera hauetan, informazio guzti hau, guraso zein ikasleei eskeiniko zaie. Bilbo aldeko ikastoletara joango ginateke bertan dauden gazteei gure informazioa helarazteko.

Egun bat adostuko genuke areto batean bilera bat egiteko, haurren gurasoak ere informatuak izateko. Hitzaldi honetan, alde batetik gure enpresaren informazioa aurkeztuko genuke eta beste alde batetik matrikulazioa egiterako orduan egon daitezkeen zalantzak argitu.

Informazioa zabaltzeko erabiliko ditugun kanalak hauek izango dira.

<b>Kanalak</b>	<b>Deskribapena</b>
<b>Web orrialdea</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Ekintza desberdinak</li><li>● Argazkiak</li><li>● Monitorean ikasketak</li><li>● Gure helburuak zeintzuk diren</li><li>● Sare sozialetara sartzeko linkak</li></ul>
<b>Sare sozialak</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Argazkiak</li><li>● Bezeroak erakarri</li><li>● Ekintza desberdinetako bideoak</li><li>● Txangoen argazkiak</li></ul>
<b>Hitzaldiak ikastoletan</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Ikasleei zuzenduta</li><li>● Gure ideologia azaltzea</li><li>● Ekintzak azaldu</li><li>● Haurrak etortzea animatu</li></ul>
<b>Bilboko kultur- etxean batzarra</b>	<ul style="list-style-type: none"><li>● Haurrak dituzten gurasoei zuzenduta</li><li>● Aurkezpen bat prestatuko genuke</li><li>● Matrikulazioan zalantzaren bat baldin badago</li></ul>